

**GOBERNU JUNTAK 2018.03.20an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
OÑATI

ETORRI GABEAK

MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2018ko martxoaren 20an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez onartu du 2018ko otsailaren 20an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Hainbat berme bueltatzea

Ondoren zehazten diren behin betiko bermeak itzultzeko espedienteak ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- Ondorengo bermeak itzultzea:

1.- Enpresa: MTM INGENIEROS PARA LA MEJORA CONTINUA, S.L.

Kontratua: Hondakin bilketa zerbitzuko ibilbideen denborak finkatzeko kontratua (2017)

Zenbatekoa: **1.770 €.**

2.- Enpresa: URKIONDO EKOLUR, S.L.

Kontratua: Zur hondakinak kudeatzeko kontratua (2016)

Zenbatekoa: **1.600 €.**

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Bi ibilgailuz hornitzeko kontratazio espedientea; huts deklaratzea

2017ko abenduaren 19an egindako bilkuran, Mankomunitate honetako Gobernu Juntak hondakin bilketa zerbitzurako bi ibilgailuz hornitzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria onartu zituen, esleitze prozedura irekitzea erabakiz.

Horretarako emandako epean ez da proposamenik aurkeztu.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Lizitazio hau huts deklaratzea.

3.2.- Plastikoaren kudeaketari buruzko Batzordearen proposamena

Gobernu Juntak aho batez onartu du Hondakinen Kudeaketa Batzordearen proposamena. Honako hau da:

“Garbiguneetko plastikoaren kudeaketa: bereizketa jatorrian

2017/11/23an GAOOn argitaratu zen Debagoieneko Garbiguneetako plastikoa kudeatzeko kontratazio prozedurara Bañu-Etxe enpresa soilik aurkeztu zen, baina prozeduraren erdian bere eskaintza erretiratu zuen, lizitazio prezioa baxuegia zela argudiatuz. Aldi berean, ordu arte plastikoaren kudeaketagatik 70 €/tonako kobratzetik, tonako 130 € kobratzera igaro zen Bañu-Etxe, plastikoaren merkatuaren gora-beheren ondoriozko prezio igoera izan zela arrazoituz. Hori ikusirik, Mankomunitateko Ingurumeneko zerbitzu teknikoa beste zenbait kudeatzaileekin harremanetan jarri zen, plastikoa kudeatzeko instalazioak eskualdetik kanpo kokatzea ahalbidetuko balitz, lizitazioan interesik izango luketen jakiteko. Kudeatzaile hauek adierazi ziguten, garbiguneetako plastikoa heterogeneoegia zela ondoren plastiko hau bereizi eta balorizatu ahal izateko. Ondorioz, jatorrian bertan plastiko bereizteko ze aukera egongo lirartekeen aztertu du Ingurumeko zerbitzu teknikoak, kudeatzaile espezializatu baten irizpideak eta garbiguneetako muga operatibo eta espazialak kontuan izanik. Garbiguneetako zaindareekin hitz egin ondoren, Arrasateko garbigunean proba-pilotu bat egingo da, non PVC motako plastikoa, plastiko gogorra eta gainontzeko nahastura bereiziko diren. Bereizitako kopuruen arabera eta bereizketa-logistikak ahalbidetzen duen neurrian, PVCa eta plastiko gogorra Lemoako kudeatzaile batekin dohain kudeatuko da eta gainontzeko plastiko nahas dura momentuz Bañu-Etxerekin kudeatuko da. Proba pilotu honen iraupena 2-3 hilekoa izatea aurreikusten da eta lortutako emaitzen arabera, garbiguneetako plastikoa kudeatzeko lizitazio berri bat prestatuko litzateke, horretarako lizitazio prezio berri bat zehaztuaz eta, beharrezkoa bada, plastikoak kudeatzeko instalazioak eskualdetik kanpo kokatuak egoteko aukera zabalduaz.

Hau guztia kontuan izanik, garbiguneetako plastikoa kudeatzeko azaldutako probak egin eta emaitzen arabera lizitazio prozedura berri bat martxan jartzea proposatzen dute batzordekideek aho batez eta gaia Gobernu Juntara eramatea, bertan onar dadin.”

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; eskaera berria eta luzapenak

- **Eskaera berria; J.F.A.O.**

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren industri modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Jarduera honako hau izango da: autorearen diseinua, kultura eta sormeneko industriarekin erlazionaturiko ekimenak.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- J.F.A.O. jaunari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (3-IM) industri modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

- **Luzapen bat; Z.A.J.**

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2019ko martxoaren 31 arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 7-ZM zerbitzu modulua erabiltzeko baimena, Z.A.J. andreari emana, Gobernu Juntaren 2017ko martxoaren 14ko erabaki bitartez.

- **Luzapen bat; A.A.A.**

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2019ko apirilaren 9ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 8-IM industri modulua erabiltzeko baimena, A.A.A. andreari emana, Gobernu Juntaren 2016ko abenduaren 20ko erabaki bitartez. Luzapen hau baldintzatua egongo da aipatu Araudian jasotako dokumentazioa apirilaren 10a baino lehen aurkeztera. Aurkeztuko ez balu luzapena bertan behera geldituko litzateke.

4.2.- “GARAPEN BATERA 2017-2018” proiektua betearazteko Garapenerako Agentzien arteko lankidetzaz hitzarmenaren eranskina sinatzea. Partaideen kostuen eta finantzaketaren zehaztapena

2017ko irailaren 1ean sinatu zen “GARAPEN BATERA 2017-2018” proiektua betearazteko Gipuzkoako Agentzien arteko lankidetzaz hitzarmena. Hitzarmen honen xedea da agentzia sinatzaileek ordezkaturako lurralde-eremuetan “Pertsonekin eta lurraldearekin konpromisoa hartu duten enpresak sustatzeko Programa” betearaztea.

Orain, lankidetzaz hitzarmen honen eranskina sinatzea proposatzen da. Eranskin honetan Agentzia partaideen kostuen eta finantzaketaren zehaztapena, ordainketak eta betebeharrak jasotzen dira. Mankomunitate honek guztira 11.254,26 €-ko diru-laguntza jasoko du.

Garapen Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- “GARAPEN BATERA 2017-2018” proiektua betearazteko Gipuzkoako Agentzien artean sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren eranskina sinatzea, proposatutako testuaren arabera.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

18/11.- 1.- Bide publikoan, Garbiguneetan eta Mankomunitatearen beste zerbitzu batzuetan bildutako zur hondakinak kudeatzeko kontratua ARREGI ETXABE JUAN JOSÉ, S.A. enpresari esleitzea ondorengo prezioan:

- Zur tratatuaren hondakinak kudeatzeagatik: 3,25 €/tm, gehi 0,325 €, BEZaren %10ari dagokiona.
- Zur garbiaren hondakinak kudeatzeagatik: 0 €/tm.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei “*Convenio colectivo de recuperación y reciclado de residuos y materias primas secundarias*” delakoa aplikatuko zaie.

18/12.- Debagoieneko Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak emateko 2018ko deialdia onartzea, ondorengo klausulen arabera:

DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREN LURRALDE-EREMUAN 16 ETA 18 URTE TARTEKO GAZTEEN LAN ETA GIZARTE TXERTAKETA ERRAZTEKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN ONURA PUBLIKOKO ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO 2018KO DEIALDIA

1. Oinarri arautzaileak

Deialdi honen oinarri arautzaileak Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zituen 2017ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, eta 2017ko martxoaren 30eko 63 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

2. Aurrekontu kredituak eta diru-laguntzen zenbatekoa

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 19.000 €-koa izango da, eta Mankomunitateko 2018ko Aurrekontu Orokorraren 7100.481.241.00.01 partidaren kontura emango dira.

Orientazio eta txertatze laboral eta sozialeko ekintzetan parte hartzen duten gazte kopurua oinarritzat hartuko da erakunde eskatzaileei eman beharreko laguntzak kalkulatzeko. Gazte bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 475 €-koa izango da. Hautatutako erakunde bakoitzak jasoko duen diru laguntzaren kopurua, programan izandako gazte parte hartzaile eta gazte bakoitzeko dagokion diru-laguntza kopurua biderkatzetik ondorioztatuko da.

Diru-laguntzen kopuru guztiak, dagokion aurrekontuaren partidari ezarritako gehienezko kopurua gaindituko balu, Mankomunitateak guztien arteko banaketa proportzionala egingo du.

3. Diru-laguntzen xedea

Diru-laguntza hauen helburua edo xedea da derrigorrezko bigarren hezkuntza titulua ez duten 16 eta 18 urte tarteko gazteei zuzendutako orientazio eta txertatze soziala eta laborala sustatuko duten ekintzak areagotzea.

4. Diru-laguntzak emateko erregimena

Diru-laguntza hauek norgehiagokako erregimenean emango dira.

5. Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak

Debagoieneko eremuan bere aktibitatea garatzen duten onura publikoko izendatutako erakunde pribatuak diru laguntza hauen onuradunak izan ahal izango dira. Beti ere, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekupeetan ez badaude.

6. Diruz lagungarri diren jarduerak

Emango diren laguntzek, oinarritzko prestakuntza eta kualifikazio profesionaleko programetako orientazio eta txertatze laboreko eta sozialeko ekintza osagarrien kostu espezifikoak babestuko dituzte. Gazteei zuzendutako, taldean zein banaka, burutzen diren orientazio eta txertatze laboral eta sozialeko ekintzetan gauzatuko dira. Txertatze ibilbideak diseinatzeko, enpresetan

praktikak garatzeko eta praktika horiei lotutako tutoretza pertsonalizatuak babestuko dira, beti ere, erreferentziazko prestakuntza programetako gazte parte hartzaileen lan eta sozial txertaketa errazteko badira.

Ekintza hauek Debagoieneko eskualdean garatu beharko dira eta Mankomunitatea osatzen duten udalerriren batean bizi diren eta derrigorrezko bigarren hezkuntza titulua ez duten, 16 eta 18 urte tarteko gazteei zuzenduko zaizkie.

Ekintza hauek 2017an garatutakoak izan beharko dira.

7. Prozedura agintzeko, instrukzioa egiteko eta erabakitzeko organo eskudunak

Laguntzen deialdia egitea Debagoieneko Mankomunitatearen lehendakariari dagokio, eta berak hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Diru-laguntzak emateko prozedura garatzea Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziako Arduradunari dagokio, eta berorrek erabaki proposamena egiteko datuak zehazteko, horiek ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki irizitako behar besteko jarduketak egingo ditu ofizioz.

Garapen Agentziako arduradunak, eskatzaileak diru laguntzaren eta aurkeztutako dokumentazioa osoa eta zuzena dela eta onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela baieztatuko du.

Zerbitzuko arduradunak eskaerei buruzko balorazio txostena egingo du.

Eskaerak ebaluatuta, prozedura erabakitzeko proposamena Garapen Agentziako Batzorde Informatiboak egingo du eta Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntara eramango du, bera baita erabakia hartzeko organo eskuduna.

8. Diru-laguntzak eskatzeko modua eta epea

Diru-laguntza hauek lortzea nahi dituzten erakundeek, Debagoieneko Mankomunitateko egoitzan dagoen eskaera eredu normalizatuari egokitutako eskaera aurkeztu beharko dute.

Eskaerak aurkezteko epea, diru laguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetatik kontatuta, 15 egun balioduneko izango da .

Ondo betetako eskaera eredu normalizatuarekin batera, eskatzaileek ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- 1. Erakunde pribatuaren eraketaren dokumentu edo idazketa.*
- 2. Erakundearen ordezkariaren botereak eta nortasun agiria.*
- 3. Eskatzailea onura publikoko izendapenaren agiria.*
- 4. Identitate fiskalaren txartelaren kopia.*

5. Banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako agiria, ziurtatzeko bere izenean kontu korrante bat duela.
6. Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunetikiko ordainketak egunean dituela dioten ziurtagiriak.
7. Diru-laguntza eskaera honetako jarduerak finantzatzeko jasotako beste diru-laguntza edo sarreren zenbatekoa adierazten duen zinpeko aitorpena.
8. Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren diru laguntzak jasotzeko debekuetatik batean ere ez egotearen zinpeko adierazpena.
9. Garatutako txertaketa laborala eta soziala errazteko eta orientazioko ekintza osagarriekin erlazionaturiko dokumentazioa.
 - Garatutako ekintzen azalpena
 - Garatutako programaren azalpena eta helburuak
 - Banakako zein taldeko ekintzak
 - Garatutako ekintzen egutegia
 - Ekintzak burutu dituen pertsonala eta euskararen ezagutza
 - Erabilitako bitartekari eta ekipamenduak
 - Inplikaturiko kanpo eragileak
 - Ekintzen onuradun parte hartzaileak
 - Garatutako ekintzen ebaluaziorako ekimenak
 - Garatutako programaren ekintzetan erabilitako hizkuntza
 - Gastuen erlazioa eta justifikazioa
 - Pertsonal gastuak
 - Material gastuak
 - Kontsumoak
 - Beste batzuk
 - Lortutako emaitzak
 - Txertatze laborala eta sozialarekiko banakako ibilbideetan lortutako hobekuntzak
 - Orientazio zein txertatze laborala eta sozialeko ekintzak abian jarri izanaren emaitza espezifikoak.

9. Erabakitze eta jakinarazteko epea

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak erabakitze organo eskuduna Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Junta izango da.

Orokorrean, dagokion erabakiak hartu eta horiek argitaratu edo jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori deialdia argitaratzen denetik hasiko da kontatzen.

Aipatutako epe muga igarota erabakia jakinarazi ez bazaio edo argitaratu ez bada, legitimatuko du eskatzailea administrazio isiltasunez ezetsi dela ulertzeko.

Prozeduraren erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoko Ohiko Prozedura Administrazioaren urriko 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesatuek Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatuek aukera dute horren aurretik berraztertze ko hautazko errekurtsua aurkezteko Mankomunitatearen Gobernu Juntari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertze koaren berriazko ebazpena eman edo uzteko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

10. Eskaerak balioesteko irizpideak

Eskaeren arteko hautaketa ondorengo balorazio irizpideen arabera egingo da:

a.- Garatutako ekintza osagarrien programaren argitasuna, hedaduraren egokitasuna eta jarritako helburu eta garatutako metodologiaren arteko koherentzia. 50 puntu arte.

b.- Garatutako ekintzen inpaktua edo eragina prestakuntza programen parte hartzaileen lan eta sozial txertatze arloari dagokionez. 40 puntu arte.

c.- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna. 10 puntu arte.

Diru-laguntza hauen onuradun izateko gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.

19.000 €-ko gastua baimentzea 2018ko Aurrekontu Orokorraren 7100.481.241.00.01 partidaren kargura, deialdi honi aurre egiteko.

18/13.- 18/02 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI MILA BOSTEHUN ETA BERROGEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI ZENTIMO (137.540,78 €).

18/14.- 18/03 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA BERROGEITA BAT MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMO (441.673,70 €).

18/15.- 1.- G.I.A. kontratatzea ondorengo lanak egiteko:

- Zamaketari bezala, otsailaren 19tik 21era, Debagoieneko ekarpen-guneak eta larrialdi-guneak garbitzeko.
- Txofer-zamaketari bezala, otsailaren 23tik 27ra, J.A. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko.
- Txofer-zamaketari bezala, martxoaren 1etik aurrera, Balerioko materiala Epelera eramateko.

Lanpostu bakoitzari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- E.A.I. kontratatzea otsailaren 20an D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- A.A.I. kontratatzea otsailaren 27tik aurrera J.E. txoferraren ordezkapena egiteko, gaixotasunagatik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- J.R.A. zamaketaria kontratatzea martxoaren 1etik aurrera Balerioko materiala Epelera eramateko.

5.- J.M.T.L. txofer-zamaketariari otsailaren 1etik 28ra arte zerbitzuko lan pilaketari aurre egiteko egindako kontratua martxoaren 28ra arte luzatzea.

6.- M.A.E. kontratatzea martxoaren 6tik 8ra eta 19an D.G. Garbiguneko zainzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

18/16.- 1.- Debagoieneko Mankomunitateko 8 udalerrietan arropa erabilia eta tamaina txikiko objektu berrerabilgarrien gaikako bilketa, bildutako materialen kudeaketa eta edukiontzien garbiketa eta mantentzea egiteko kontratua EMAUS GIPUZKOA, S.L.U. gizarte-enpresari esleitzea urteko 29.856,86 €ko prezioan, gehi 2.985,69 €, BEZaren %10ari dagokiona.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei *“Convenio colectivo de recuperación y reciclado de residuos y materias primas secundarias”* (BOE 2016/09/23) delakoa aplikatuko zaie.

Subrogatu beharreko 2 langileei dagokienez, gogorarazten da gaur egun aplikatzen zaien hitzarmena Gipuzkoako Bide Garbiketa Publikoaren hitzarmen kolektiboa dela.

18/17.- 18/04 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA BERROGEITA LAU MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (244.694,17 €).

18/18.- - M.L.Z.C. bitarteko funtzionario izendatzea, 2018ko martxoaren 28tik apirilaren 1era arte, Aste Santuan LEIRE PARRA teknikariaren ordezkapena egiteko. Eguneko 167,38 €ko ordainsari gordina emango zaio.

6.- GALDE-ERREGUAK

- “Epeleko zabortegian zigilatu, gela berria ireki eta garbigunea egiteko proiektuko” lanen kontratua dela eta, CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A.U. enpresak jarritako ondorengo administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzko Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren epaiaren berri eman du idazkariak:
 - ipatu obraren azken zertifikazioaren onespeneren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezesteko Gobernu Juntaren erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

Errekurtsoa bere osotasunean ezetsi da, CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A.U. enpresari kostak ordaintzeko zigorra ezarriz.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.